



ASTEASUKO UDALA

(GIPUZKOA)

**JON GIL BELTZA JAUNAK, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, ASTEASUKO
UDALEKO BITARTEKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK,**

ZIURTATZEN DU:

Udalbatzak, 2018ko apirilaren 24an eginiko ohiko bilkuran, honako akordioa hartu zuen, A.F.A.ren 206 artikulua salbuespenarekin:

2017ko Udal aurrekontuaren likidazioa: Udaleko Idazkari Kontu hartzailearen txostena komunikatzea

Martxoaren 15eko 59/2018 Alkatetza Dekretuaren bidez, Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartu da. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		974.749,39
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		36.422,86
Aurrekontuko zordunak :	34.956,12	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.466,74	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		232.876,91
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	92.790,73	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	140.086,18	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		778.295,34
5.- Saldo kobragaitzak:		15.884,48
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		762.410,86



ASTEASUKO UDALA

(GIPUZKOA)

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	200.692,16
2.- Aurreko ekitaldian likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-474,88
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	105.975,72
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	306.193,00

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	240.430,72
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	187.032,85
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	427.463,57

Espediente horretan, udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko txostena jaso da; besteren artean, honela dio:

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta dago plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udaltzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontatzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita.

Hala eta guztiz ere, Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretako (2016/11/15eko GAO) 3. erregelarekin bat, plan finantzarioaren ordezkari zuzendutako komunikazioaren bidez ordezkaturiko da, izan ere, likidazio honetan egiaztatuta ahal izan da betetzen direla 2013/1 Foru Arauaren 5. artikuluko 4. paragrafoko hiru baldintzak: diruzaintzako gerakina positiboa, zor publikoaren helburua, eta defizit helburua.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.



ASTEASUKO UDALA

(GIPUZKOA)

Beraz, Udalbatzak


ERABAKI DU

Lehena. Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazio espedientean, adieraztea udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko txostena komunikatua izan dela.

Eta horrela jasota gera dadin, eta behar diren ondorioetarako, honako ziurtagiria luzatzen dut, Alkate Andrearen oniritziarekin, Asteasun, 2018ko apirilaren 24an.

O.I.

ALKATE ANDREA



BITARTEKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

